

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2013ko ekainaren 21a  
339. zenbakia. 25. urtea



## Orio-Candás. Bi herri, bide bat

Kantauri itsasoko autopistak lotu zituen bi herriak duela urte batzuk. Bietan arrantza flota ahulduta, beren arteko harremana indartzen ari dira orain

**05**

**Orioko kontuak**  
Bungalowak ia prest

**08**

**Kirola**  
TKEko 1. jardunaldia

**11**

**Aiak o berri**  
Sanpedroak

**25**

**Herritarra**  
Marco Villén, Mikel Escuder



ERAIKINEN ERREABILITAZIO ERAGINKORRA  
Komunitateentzat Dirulaguntzen Kudeaketa

**XS**

arkitektura

- ITEa, egungo egoeraren analisisa
- Aholkularitza energetikoa
- Dirulaguntzen kudeaketa
- Lizentzien tramitazioa
- Informeak, proiektuak eta obrak



Borja Agirresarobe Lopetegui 635731722

Iturribide 8, 5-6 bulegoak, Zarautz 20800(Gipuzkoa) Ifno/fax 943 134 358 www.xsarkitektura.com



Orioko  
Herri  
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

tel/fax: 943 89 00 69

Bizkaia kalea, 4 - 20 800 ZARAUTZ



ITURGINTZA\_BEROGINTZA  
GASA BAINU ERAKUSKETA

Proiektuak, instalazioak, O&M

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezin automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74

Arantza, 31 - 20810 ORIO

**SARASUA ERRETEGIA**

Plater bereziak:

-Arrain zoba

-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

ORIO

Tel: 943 83 00 05/  
943 13 25 32



FISIOTERAPIA: Garkoitz Aristegi eta Natalia Wierszen  
NUTRIZONISTA: Garbete Aizpuru

sinergia investigacion  
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95



Zaragueta  
Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52

e-mail: 012137aa@hezuntza.net



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)

943 835 980 www.2gurpil.com

bigurpil@hotmail.com



edartelegia  
**ANTILLA**  
jatelekuak  
Abeslari kalea, 2 - Tel: 943 83 29 09

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

**KARKARA**

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

# Anibarko portua, festa bihurtua

**1**

Bertoak dizkizut sortu, zuri Anibarko Portu, kontatuz nola jendea zugan zen lehorreratu. Aingura indarrez sartu ta gelditzera ausartu, piraten gisa etorri eta ijito bihurtu.

**2**

Orain aulki ta farola, lore, zelai ta arbola; lehenago sasi, hondakin, txapa harri ta hesola. Hura hala ta hau hola, damurik ez da inola, hobetu nahiak erakusten du bizirik dagola.

**3**

Gaur jarri zara apaina, trikiti ta jai usaina. Gu ilusioz betetzen gaitu, haurrak imajina. Jan ta edan nahi adina. Ez da inporta adina. Ondo legoke disfrutatzeaz poztuko bagina.

**339**

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

943 83 15 27  
karkara@karkara.com**Editorea**Karkara taldea  
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**Irati Agirreazaldegia,  
Onintza Aiestaran,  
Iñigo Gaiton,  
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
eta Idurre Lizarralde**Publizitatea**

IkerGurrutxaga

**Publizitatearen diseinua**

Iker Gurrutxaga

**Festa-programaren diseinua**

Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun**Ale honetako laguntzaileak**Onetsine Arrizabalaga,  
Josune Genova,  
Celeste Herrera,  
Jose Miguel Karrera,  
Munia Larburu,  
Jabier Zabaleta,  
Olatz Zuloaga**Laguntzaileak**Iñaki Iturain  
eta Xabier Sukia**Diseinua**

Karkara taldea

**Banatzaileak**Kattalin Bollain  
eta Esti Uranga (Orio)  
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop, E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

**Iragarkia behin jarrita**

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Iker Gurrutxagarekin hitz egin (943 831 527) edo karkara@karkara.com**  
**Prezio hauei BEZa gehituko zaie**

**LAGUNTZAILEAK****EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Motondoko itxitura. Udal-Ondarea

Motondori buruz hitz egiten entzutean, gutxi askok daki *itxitura* hori Orioko emakume eta gizonen egindako lana izan zela. Landatzeko lur eskasiaren eta gosearen ondorioz, Orioko emakume eta gizonen egindako lan nekeza medio, 20 hektarea lortu eta mende batez Orioko familia ugari ustiatuak izan ziren.

Oraindik bada Orion garai hartan animalientzat larrea lortzeko eta haiek elikatzeko, babarrun eta sagarrak landatuz, lan ugari egin zuen pertsonarik.

XX. mende erdialdetik Motondoko nekazaritza-erabilerak behera egin zuen eta itxitura saldu egin zen. Jabetza berrikerriaren aurrealdea indartu egin zuen eta itxitura lur finkora lotu zuen, horrela, oinezko eta ibilgailu, Olaurre itxiturari eta Saltxipi baserriari sarbidea eman. Pasabide hori egin ondoren, Udalak, Plai-Txiki zabortegia itxi zenean eta Usurbilgo errausketa-labera eraman bitartean, urteetan bota zituen bertan herriko zaborrak.

Ondoren, 87tik 91ra bitarteko legealdian, Udalak industrialde bat egiteko ahaleginak egin zituen, guztien adostasunarekin hitzarmen zirriborroja jabetzarekin adostuz.

91tik 95era bitarteko legealdian ahaleginarekin jarraitu zuen Udalak, baina legealdi horretan guztien adostasuna bertan behera gelditu zen, HB atzean gelditu baitzen. Bitxia badirudi ere, HB izan zen aurreko legealdian hitzarmena sinatzeko gehien parte hartu zuen taldea.

Egun, Motondo bertako eta Oriako Beheko erriberetako ibaiertzetako egoera desberdina da eta errespetatu beharreko ingurune-babesa du. Eta hori da nik azpimarratu nahi dudana; gure arbasoek merezi duten errespetua. Neurri hartako obra burutzeko egindako lan eta esfortzua ez zen makala izan; harriz forratutako bi kilometroko dikea eta euri-ura hustu eta ur gazia sarrera ekiditeko ubide eta konporta sarea egin zituzten.

Azpimarratu nahi nuke, ingurune-babesak izugarritzko balioa ematen diola itxiturari; larreak, haltzadiak, anfibioak –itsas mailan baso-igel gorriaren ugalketa–, narrastiak, anatidoak, oilagorrak... dituen flora eta fauna handiko biodibertsitate hezegunea baita berau.

Gune hori urez betez gero, bertako fauna eta flora asko desagertu egingo da. Honen aurrean, galdera bat egiten diot nire buruari: zergatik ez dituzte errioren goi aldean dauden Monparsana, Olaberrieta, Sarikola... guneak urez bete eta garbitzeko esfortzua egiten? Eta,

zergatik ez dituzte Motondo eta Marrota inguruko lokatzak onera ekartzen, arrain, molusku, hegazti eta, azken finean, pertsonentzako hain kutsagarriak diren bertako metal astunak kentzeko?

Oriotar asko dira nire iritziz berekoak; garai hartan emakume eta gizon haiek ez balituzte Motondo, Mariaerrotako edota Erriberak itxi izan, gaur egun, Orio ez litzateke bizitzeko hain herri bizi eta bikaina izango.

Udalak ondarea gehitzeko Motondo erosteagatik ordaindutakoa garestia edo merkea den eztabaidagarria da, baina Motondo itxitura landa-lurra da, beste hainbeste izan daitezkeen bezala; hala nola, Mariaerrotako lurrak, erriberetan urbanizatu bezala sailkatu ez direnak, udal-kanpina eta baserri guztiak. Bakioitzak atera ditzala bere ondorioak.

Niretzat zentzuzko prezioa da eta erosketa hori Antillako gunean ondarea saltzearen ondorioz lortutako baliabideek eragindako aukera baten ondorioa da; gainera, XIX. mendean gure arbasoek itsasoari irabaziz udal-ondareari gehitzeari lortu.

Gaur egungo buruzagiei gogorarazi nahi diet, Udalak azken berrogei urteetan ondorengo ondarea erosi edo berrosi duela: kanpinean 5.000 metro koadro bakoitzeko bi lursail, Zaragueta inguruan 10.000 metro koadro, Dato lursaila eta beste 15.000 metro koadro, hondartza aurrean 15.000 metro koadro, Bergante baratzeak 13.500 metro koadro eta Motondo 200.000 metro koadro.

Ondarea erostera bultzatu nahi ditut, ondarea saltzetik lortzen diren baliabideen helburu nagusiak, ondare berria erostea izan behar baitu. Ondarea izateak etorkizunean gure herriak komentatzen eta Oriorentzat onuragarriena den politika egitea ekarriko dio.

Bukatzeko, utzi dezagun *Motondo itxitura* dagoen bezala, zoragarria baita dagoen bezala eta gure errioren ingurumen-funtzioa betetzen baitu, gainera. Eskerrik asko. ■ **Jose Miguel Makazaga.**

## Legealdi erdiko hausnarketa

Dagoeneko legealdiaren erdia joan da, bi urte dira 2011ko Udal hauteskundeetan alderdi bozkatuena izan zen EAJ gobernutik at utzi zutela. Denbora honean oriotar asko jarri dira lehen aldiz gurekin harremanetan, kalean, gure bulegoetara etorri, telefonoz edo interneteko gure sare sozialaren bidez. Herriarren eskaerak hainbat modutakoak izan dira: batzuetan Udalak ez diolako

bere arazoei erantzunik eman, bestetan sukaldaritza ikastaroak eta hitzaldiak antolatzen eskatzen eta beti gure inplikazioa eta gogoia eskertuz. Ahal izan dugun moduan laguntzen saiatu gara. Doakia idatzi honen bidez gure eskerrik beroena EAJra inguratu diren oriotar guztiei, eta horrela jarraitzeko gonbita luzatu nahi diegu gure eskuetan dagoena egiteko konpromisoa tinko mantentzen baitugu nahiz eta oposizioan egon.

Eta Orioko Udalaririk buruz zer? Bildukoek Udala gestio aldatzeko zuzen justifikatu nahi izan zuten bozka gehien jaso zuten alderdia gobernutik kanpo uzteko arazoia. Eta aldatuta iritsi da, bai horixe! Oposizioan dagoen alderdiak informazio eza du bere eguneroko jarduerari; azken ordura arte Udalean gauzatu nahi diren gaiak ezin jakinik gabilta. Bilerak ahal izanez gero iluntzean egin beharrean bazkalostean jarritan bere lanean dabilen zinegotziak –Udal liberaziorik ez dutenak– bertaratzeko arazoak izan ditzaten, eta abar.

Eta zein dira emaitzak? Martxan zegoen herri bat erabat geldirik dago. EAJ alderdiak legealdi ekarri izan ditu herrira hobekuntzak eta diru sarrerak –autopista irteera, teknifikazio zentroa, Kofradia berria eta abar–. Zein dira gobernu berri honen ekarpenak? Noizko N-634 saihebidetza? Noizko bukaturik plaza inguruko saneamendua? Gure ur zikinak errioren botatzen jarraitu behar ote dugu?

Badakigu krisia aitzakiatzat hartu eta justifikatu nahiko dituztela guztiak baina EAJ alderdiak udal gobernu utzi behar izan zuenean diru poltsa ederrarekin utzi zuen Udaleko diruzaintza, Gipuzkoako herri saneatuenetako bat ginelarik. Zenbat euro geratzen dira soberakinetan? Non xahutzen ari dira diru horiek? Herriari azalpenak eman behar ko dizkiote gobernuan dauden alderdiek, ezta? Hau al da herria kudeatzea?

Badirudi, Bilduren buruhauste nagusia EAJ, oposizioan dagoen alderdia, kritikatzeko dela, seguruenik beren ahuleziak eta ekimen eza estaltzeko. Bitartean, guk lanean jarraituko dugu, herritarrek jakinarazten dizkiguten arazoak konpondu nahian eta herriarentzat onuragarriak diren ekintzak bideratzen.

Besterik gabe, gure eskerrik beroenak Orioko herriari egunero ematen diguzuen animoa eta babesagatik eta irailera bitartean azken KARKARA izango denez, San Pedro jaiekin disfrutatuta eta uda on bat pasa! ■ **Orioko EAJ-PNV.**

# Ekaina bukatu aurretik bungalow zerbitzua martxan

Sanpedroetarako guztia txukundu nahian dabilta Orioko Udal Kanpinean. Dena dela eguraldiak baldintzatuko du egun hartarako zerbitzua eman ahal izatea, besteak beste, asfaltatzea falta delako

Orioko Bilduk adierazi zuen bezala, beren agintaldiko *inbertsiorik handiena izango da* Orioko Udal Kanpinean egin duten azpiegitura eta laster egongo da erabiltzeko moduan. Lanak maiatzetarako bukatzekoak baziren ere, eguraldi euritsuak atzeratu egin ditu.

Hala, sanpedroetarako nahi du bungalowen zerbitzua ematen hasi Orioko Udal Kanpineko zuzendari Idoia San Sebastianek. Hiru motako etxetxoak izango dira, logela bat, bi edo hiru dituztenak. Txikienetan lau pertsona kabituko dira, eta handienetan, toki justuarekin bada ere, zazpi lagunentzako lekua izango da.

Horrez gainera, bungalow batzuk elbarrientzako propio prestatu dituzte.

Tarifak hiru denboralditan banatu dituzte: uztailaren letik abuztuaren 31ra, goi-denboraldia; zubiak, Aste Santua eta uda hasiera eta bukaera –ekaineko azken bi asteak eta iraileko lehenengo biak– tartekoa, eta gainerakoa behe-denboraldia izango da. Goi-denboraldian logela bateko bungalowak alokatzea 85€ kostatuko da eguneko; bikoa eta elbarrituentzakoak 110€; eta hirukoa 135€; guztietan izarak eta toallak sartzen dira prezioan.

## ZENBAKIA

# 34

**Bungalow.** Guztiek izango dituzte auto bantentzako tokia, ataripea, telebista, parrila eta sukaldea -bitrozeramika, sukaldeko tresneria, hozkailua, kafeontzia eta mikrouhin labea-.



Ingurua txukuntzea eta azken xehetasunak baino ez dira falta. KARKARA

# Euskal Herriko 25. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ekainaren 22an

Euskal Herriko ikastolen federazioak hala erabakita, Karela kiroldegian izango da bertsolari txikien festa handia. Bi saio izango dira, bata goizean eta bestea arratsaldean

Bertsolaritzaren festa izango da datozen ekainaren 22an, larunbatarekin. Euskal Herriko 25. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatuko da Karela kiroldegian. Saio hori Oriora etortzen den lehendabiziko aldia da.

Aurten arte toki desberdinetan izan da txapelketa eta orain Oriora etorri da bertan geratzeko asmoz.

Saioa aurkezteko prentsaurrekoan,

Amaia Dorronsoro Orioko Udaleko zinegotzia, Miren Irigoien Bertsozale Elkarteko ordezkaria eta Juanjo Respaldiza Ikastolen Elkarteko ordezkaria izan ziren. Dorronosoren hitzetan, *errespetua ematen du halako ekitaldia Orion izateak. Herri mugimendutik sortutakoa da txapelketa hau eta baita hori sustatzen duten elkarteak ere. Gainera, Orioko Udalak lagundu egiten ditu Ikastola eta*

*Errikotxia bertso eskola.*

Oriotarrak ere izango dira saioan, nahiz eta kantuan inor ez den arituko. Xabier Sukia izango da aurkezlea eta Patxi Etxeberrriak emango ditu sariak.

Goizeko saioa 11:00etan hasiko da eta estreinakoz taldeka izango da 14 urtez azpikoen txapelketa: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldea arituko dira lehian. Arratsaldeko saioa, berriz, 15:30ean hasiko da. Bertan 14 urtetik gorako 10 bertsolarik kantatuko dute, bina aurretik aipatutako lurralde bakoitzetik.

200 laguntzako bazkaria ere antolatuko dute eta txartelak bertan salduko dira.



Dorronsoro, Respaldiza eta Irigoien txapelketa aurkezteko prentsaurrekoan. KARKARA

## LABUR

### Turismoa

#### Txu-txu trenan abian jartzeko prest

Ekainaren 22an hasiko da txu-txu trenan iazko zerbitzu bera ematen eta irailaren 8a arte egongo da martxan. Goizeko zerbitzua 11:00etatik 14:00etara izango da, eta 15:30etik 20:00etara, berriz, arratsaldekoa. Joan-etorriko txartelak 60 zentimo balioko du eta honako tokietan erosi ahal izango da: Oditzen, Olatun, Il Gelaton, Goxokin, Kaiuan, kanpinean eta turismo bulegoan.

### Politika

#### 40.000 euro gehiago Karelarako

Ekainaren 6an Orioko Udalak egindako ezohiko bilkuran Karela kiroldegia erabaki zuten. Gauzak horrela, 110.000 eurotik 150.000 eurora pasako da Udalak kiroldegirako ematen duen diru-kopurua. Bildu eta Orainen aldeko botoekin onartu zen gaia, EAJkoen ustez aldaketa horrek ez du arazoa errotik konponduko eta partxe bat dela pentsatzen dute. Gaiak soluzio egokiago bat behar duela, integrala, gaineratu zuen Jon Redondok EAJren izenean.

### Ingurumena

#### Konposta egiteko ikastaroa

Urola Kostako Udala Elkarteak konposta egiteko martxan jarri zuen kanpaina hirugarren fasean sartu da. Hala, etxean lorategia duten herritarrak etxean konposta egiteko animatu nahi ditu mankomunitateak. Hala, gutunak bidaliko dituzte etxean konposta egin dezaketen etxebizitzetara. Gutun horretan, ikastaroak non eta noiz izango diren eta izena nola eman adieraziko da. Ikastaroaren iraupena ordubete ingurukoa da. Datorren ikastaroa uztailaren 1ean izango da gurean, Orioko Herri Ikastolan, 19:00etan hasita.

# 'Gazteak eta itsas kultura' izeneko auzolandegia egingo dute abuztuan

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak udan antolatzen dituen auzolandegietako bat izango da Oriokoa. Kaia eta Eusko Gudari kaleen arteko etxea zaharberrituko dute gazteek

Gazteentzako ekintzak eta programak antolatzen dituen erakundea da Gazte Aukera. Erakunde hori Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren ardurapean dago.

Egiten dituzten programen artean, besteak beste, auzolandegiena dago. Udan gazteek kanpoan egonaldiak egiteko aukera izaten dute auzolandegietan, borondatezko lana eta elkarbizitza uzartzen diren udalekuetan.

Aurten horietako bat Orion egingo dute, abuztuaren 19tik irailaren 1era: *Gazteak eta itsas kultura* deitu duten auzolandegia, alegia. Gurean egingo duten egonaldian, Kaia eta Eusko Gudari kaleen arteko etxea zaharberrituko dute. Etxe horretan arrantzaleen sotoak daude eta hori izan da auzolandegia bertan egiteko arrazoia.

Orioko Udalak teknikari bat jarriko die gazteei, auzolandegia gidatu eta behar duten horretan laguntza eman ahal izateko.

## Eraikinaren zaharberritzea

Eskuz egingo dute gazteek etxearen txukuntzea. Lehendabizi eskuilekin kenduko dute fatxadako zikinkeria eta egurrezko ate eta leihoen pintura. Hor agertzen diren pitzadurak eta porlanez tapatuko dituzte zuloak fatxada zuriz margotu aurretik.

Fatxadako paretak margotzea bukatzen dutenean, leiho eta ateak pintatu egingo dituzte, baporetan erabiltzen den berde kolore berarekin. Bukatzeko, etxearen izkinetan dauden harri landuak eskuilatu eta bistan utziko dituzte; izan ere, kalitate onekoak izateaz gain, elementu historiko interesgarriak ere badira. Etxearen inguruan toki gutxi dagoenez, aldamio txikiak erabiliko dituzte auzolandegiko gazteek, ahalik eta enbrazu gutxien egiteko. Paretak txukundutakoan, mural bat egingo dute *graffitti* egile baten laguntzarekin.

Bukaeran, Norteko iturria ere txukundu egingo dute. Tratamendu berezi bat emango diote eta porlanezko estalpea kendu, inguruko harriak bistan utziaz. Hori egin eta gero, iturriaren gainean balearen inguruko elementu ikonografiko bat jarriko dute, apaingarri bezala.



Fatxadak, leihoak eta ateak txukundutakoan, murala margotuko dute bukaeran. KARKARA



Norteko iturriari tratamendu berezia eman eta porlanezko estalpea kenduko diote. KARKARA



Orioko txalupa Barceloneta hondartzaren parean, San Pedroren aurretik, TKE ligako estropadan. DV

# Indartsu itzuli da Orio Arraunketa Elkarteak TKE ligara

Mediterraneoko uretan maila ona eman zuen Igor Makazagaren aginduetara dagoen traineruak. Jokatuko diren 19 estropadetatik lehenengoan hirugarren izan zen *Mirotza*

Hasiera ona eman diote TKE ligari Orio Arraunketa Elkarteak. Ekainaren 16an jokatu zuten lehen estropada, Bartzelonan, asteburu pasa joan ziren herri-tarren babesarekin.

Oriok lehenengo txandan jokatu zuen estropada. Alboan Castreña, San Pedro eta Kaiku izan zituzten. Denboraldia prestatzeko estropadetan indartsu ibili ziren oriotarrak eta egindako lanak bere fruituak eman zituen igandean. Txanda-kobigarren traineru onena izan zen, Kalkuren atzetik, 4 segundora; hirugarren sanpedrotarrak, 10 segundora. Kaikuk 20 minutuan jarri zuen bandera irabazteko langa. Hondarribia, Astillero, Pedreña eta Portugaleten lehian ziren bigarren txandan. Hondarribia izan zen horietan azkarrena, Kaikuk baino 9 segundo gehiago behar izan zituen estropada bukatzeko; Portugaletek, berriz, 14 segundo. Oriok baino denbora kaskarragoa egin zuten gutzietan ere.

Baina 3. txandan azken test estropadako irabazlea, Urdaibai, lehiatu zen; Zu-

maia, San Juan eta Tiraneekin batera. Bermeoko ontzia jaun eta jabe izan zen txandan, eta estropadan: 19 minutu eta 51 segundo behar izan zituzten Urdaibaiak 3 itsas miliak betetzeko.

Hala, Bermeora joan da denboraldiko lehendabiziko bandera. Jon Salsamendi oriotarra dabil aurten entrenatzaile lanetan Urdaibain. Jose Luis Kortaren Kaiku izan zen bigarren eta hirugarren Orio, 9 eta 13 segundora, hurrenez hurren.

Aurten, Oriotik kanpora eta TKE ligan, sei trainerutan izango dira oriotarrak lanean: Hondarribian, Kaikun, Portugaleten, San Pedron, Urdaibain eta Zumaiian.

Datorren estropadak ekainaren 29an eta 30ean jokatuko dituzte. Lehendabizikoa Laredon, La Caixa bandera, eta bigarrena, Portugaleten, Ambilamp bandera. TKE ligari dagokion Orioko estropada, uztailaren 21ean izango da, eguerdiko 12:00etan; Orioko Kanpina bandera izango da jokoa.

## LABUR

### Sofbola

#### Playoff-eko itzulera asteburuan

Espainiako sofbol ligako titulua irabazteko lehian dabil Kiroldi OBB taldea. Joane-koan ez zuten emaitza onik eskuratu. Jokatu zituzten bi norgehiagokak galduta zituen Orioko taldeak Sant Boiren kontra: 9-2 eta 2-1. Dena dela oraindik txapelketa izateko aukera dute Sant Boiko itzulerakoan. Gogotsu joango dira bertara. Gauzak horrela, iazkoa berdinduko dute gutxienean oriotarrek.

### Pilota

#### Pala txapelketako finalak

Aurreko asteburuan jokatu ziren Orioko gomazko pala txapelketako finalerdiak. Partida politak jokatu zituzten 4 bikoteek eta finalak ere hala izatea espero dute antolatzaileek. Finalak ekainaren 21ean, ostiralarekin, jokatu dira, iluntzeko 19:00etan hasita. Lehenengo norgehiagoka, hirugarren eta laugarren posturako borroka, Jagoba Solaberrietak eta Juanjo Polok jokatu dute Xabier Murrua eta Iban Arrutiren aurka. Finala, berriz, Unai Illarramendi eta Ibon Berasaluze lehiatu dira Urko Aldalur eta Iosu Larrarteren kontra. Txapelketa berriak izango dira, beraz, 2013ko txapelketan.





KARKARA

# “Aulkian txispa hartu dudanean, pena emango lidake lanagatik uztea”

## Aitor Urbitarte

Eskubaloia entrenatzailea

Zarauzko Eskubaloia taldean urteetan jokalaria izan ondoren, entrenatzaile ere aritu da Aitor Urbitarte. Azken denboraldian Zarauzko talde nagusiko bigarren entrenatzaile izan da eta baita jubenil mailako Gipuzkoako hautatzaile ere.

### IRATI AGIRREAZALDEGI

Bizi osoa da Aitor Urbitarte *Txangurro* rentzat eskubaloia. Jokalaria eta entrenatzaile izan da Zarauzko Eskubaloia taldean eta kirol horrek gauza on asko eman dizkiola esan digu, besteak beste emaztea, umeak eta Oriorako bidea.

#### Noiztikari zara eskubaloian?

Beti ibili izan naiz Zarautzen, 14 urte nituenetik 34ra arte jokalaria eta bi-hiru urtez entrenatzaile-jokalaria. Umeak jaio zirenean bi urteko tarte hartu, eta gero, bigarren mailakoek entrenatzaileerik ez zutenaz, berriz hasi nintzen. Alaba txi-

kiena jaio zenean utzi egin nuen, baina Asier Urdangarin laguna hil zenean emazteak animatu ninduen, bolada txarrari aurre egiteko, berriz hasiera.

#### Zein ardura daukazu taldean?

Bigarren entrenatzaile izan naiz aurten eta entrenatzaile nagusiak utzi egingo duenez, hurrengo denboraldiko niri eskaini didate postua. Oraindik ez dut erabaki zer egin Espainiako bigarren mailan, zilarrezkoan, bidaia luzeagoak egin behar direlako eta nire lanarekin bateratzea posible ote den ikusi beharko dudalako, hor daukat zalantza.

Nik beti esan izan dut talde berarekin 3-4 urte egin ondoren, hobe dela entrenatzailea aldatzea. Taldean gazteak sartzen badira, mantentzea gaizki ere ez.

Jubenil mailako mutilen Gipuzkoako hautatzaile ere banaiz eta txapeldun izan berri gara. Irekiagoak dira eta ilusioa itzularazten dute. Goiko mailan emaitzei gehiago begiratzen diete; gazteetan elkarren arteko harremanari.

### “Nik beti esan izan dut talde berarekin 3-4 urte egin ondoren, hobe dela entrenatzailea aldatzea”

“Arraunak eta futbolak pisu handiagoa dute mutiletan eta nesketan baita saskibaloiak ere, baina eskubaloian atea irekita daude denentzat”

#### Aurtengo denboraldian emaitza onak lortu dituzue gainera.

Gure helburua kategoriari eustea zen eta gazteak mailaz igo, kategoria ezagutu eta zaila zela uste arren lortu dugu. Hurrengo denboraldirako asmo bera dugu. Bajak egon direnez taldea sendotzen ari gara, kanpotik jendea ekarritz, ordaindu gabe, 4-5 gehienez, Zarauzko eta inguruko balioa galdu gabe.

#### Jokalaria garaikak gogoratzen dituzu?

Bai eta oraindik inbidia ematen dit, jende profesionalarekin, Espainiako selekzioan jokatzen dutenen aurka ikusteak. Aulkian, txispa berriz hartu dudanean, pena emango lidake lanagatik utzi behar izatea, baina egoera dagoen bezala...

#### Orion ez dago eskubaloirako zaletasun handirik.

Izan dira talde onak, umetan, kinta bertsukoenak, baina oso zaila da denek eskubaloian jarraitzea. Orain, emaztea Ikastolan ari da entrenatzaile alabarekin eta Zaragueta eta Lardizabalekoek ere badituzte taldeak. Arraunak eta futbolak pisu handiagoa dute mutiletan eta nesketan baita saskibaloiak ere, baina eskubaloian atea irekita daude denentzat.

Hala ere, Oriok eman ditu eskubaloia jokalariai: Jon Azkue, Josu eta Ander Atorrasagasti, Mikel San Sebastian, Joseba Oliden, Ekain Lizarralde, Iñigo Moreno, Mikel Unanue, Koldo eta Garikoitz Lizarralde, Iñigo Eizmendi, Iñigo Salaberria... Harrobia ere ona du Zarautzen Maria Azkue ari da kadete nesketan; mutiletan Mikel Amilibia eta Eneko Lizarralde; Ania Amilibia, Ane Agirre eta Nahia Garro infantil nesketan; eta mutiletan Aitor Atorrasagasti, Mikel Atxega, Lander Zumeta eta Ioseba Rodriguez-Sierra.

## “Hiru kirolak uztartzea zaila zela uste arren, burugogorkeriaz gainditu dut”

### Gotzon Iruretagoiena

Triatloilari

Donejakue bidea arraunean egin zuenean piztu zitzaion kirolerako harra eta korrika hasi zen. Arraunean ere ibili zen urtebetez, baina lanarekin bateragarria ez eta utzi egin zuen. Horren ondoren hasi zen triatloian eta orain buru belarri dabil.

#### IRATIAGIRREAZALDEGI

Izeta sagardotegitik ezagutuko du asko Gotzon Iruretagoiena, hango semea baita. Baina, korrika, bizikleta gainean zein igerian ikusi izan duenik bada. Orain dela hiru urte erronka bota zioten: *ezetz Zarauzko triatloia egin*, besteak beste igerian ez zekielako. Baina igeri egiten pixka bat ikasi, triatloia egin, gustatu eta harrapatuta dauka kirolak. Ez dakigu sagardoa duen kirolerako bizigarri; tamainan hartuz gero ezer txarrik ez duela dio.

#### Etxean beti egon al da kirol zaletasuna?

Bai, harri-jasotzerako batik bat. Nik jarraitzen ditut herri-kirolak baita idiprobak ere, baina harri-jasotzerako ez daukat dohainik –pisua eta beste era bateko lanak behar dira–. Kirola gustuko dudanez, beste batzuk aukeratu ditut. Dena dela, harri-jasotzen ere ibilia naiz. Apustua bota zidaten: nire pisu bikoitza zuen harri zahar bat ezetz altxatu. Baina bi aldiz jaso nuen. 64 kilo pisatu nituen plazan eta 134ko harria altxatu.

#### Bi apustu tarteko, baina segi, triatloian jarraitzen duzu.

Helburu handia jarri nuen, baita gainditu ere. Korrika ibiltzen nintzen; bizikletan Quebrantahuesos proba egindakoa naiz, beraz, banekien ondo moldatuko nintzela; eta igerian dezente prestatu nuen eta lortu nuen ordubeteren barruan sartzea. Ez nekien hiru probak segidan egitea nolakoa izango zen, baina gozatu egin nuen, beraz, gustura.

#### Hala ere triatloia kirol gogorra da, ezta?

Dudarik gabe. Korrika edo bizikletaz bakarrik diren probak egin izan ditut, eta hiru kirolak uztartzea zaila izango zela uste nuen arren, burugogorkeriaz gainditu dut. Hala ere, kontuan hartu behar da denbora tarte zehatzak daudela pro-



KARKARA

ba bakoitza bukatzeko, hortaz, zorrotza izan behar du norberak bere buruarekin.

Igeri egitea da niri gehien kostatzen zaidana. Eskolan ikasi nuen bere garaian eta aurrez hartutako ohitura txarrek kentzea zaila da. Aurtengo Zarauzko triatloian igeriketa kendu dutenez, postutan aurrerago egiteko aukera izan dut, baina neguan hainbeste prestatu eta ezin egin izanak, datorren urtean hori gainditzeko harra utzi dit.

#### Zarautzen eguraldia ez da lagun izan.

Eguraldia txarra zen, marmokak zeuden uretan eta duatloia izan zen, baina niretzat polita. Bizikleta gainean asko hoztu eta korrikarako trantsizioan hankak izoztuta, gogor sentitu nituen eta hasierako lau kilometroetan asko sufritu arren, tarte hori egin nuen azkarrena. Behin erritmoa hartuta, ongi. Gainera, Zarauzko giroak eta zaleen animoek asko laguntzen dute. Bizikletan zoazela zure izena entzuteak indarra ematen du.

**“Apustua egin nuen. Nire pisu bikoitza zuen harri zahar bat ez nuela altxatuko esaten zuten, baina bi aldiz jaso nuen. 64 kilo pisatu nituen plazan eta 134ko harria altxatu”**

“Zarauzko giroak eta zaleen animoek asko laguntzen dute. Bizikletan zoazela zure izena entzuteak indarra ematen du”

#### Beste proba batzuetan hartu duzu parte?

Bai, Debakoa, Hondarribikoa eta Senperekoa egin nituen Zarauzkoa prestatzeko eta ondoren inguruko gehienak egin ditut. Asteburuan Quebrantahuesos bizikletako lasterketa egitekoa naiz, nahiz eta propio ez prestatu. Triatloian zaila da kirol guztietan oso ongi ibiltzea, baina gure helburua ez da marka egitea.

Aiako eta Orioko mendi lasterketak ere egin ditut. Neguan ongi etortzen da hanketako indarra hartzeko. Gainera bietan oso ibilbide politak izaten dira. Gustatuko litzaidake noizbait Zegama-Aizkorri egitea. Ironmanik ez dut egin lanak, familiak... ordu asko kentzen baitituzte, baina 21:00etan libratuz gero, orduan joaten naiz entrenatzera eta agian egunen batean egingo dut.



Argazkiko mutilak arituko dira lehian Iturriozko herri-kirol proban. ITURRIOZKO FESTA BATZORDEA

## Udara hasieratik festa giroa nagusi auzoetan

Abuztuaren 6an hasiko dira herrigunean sandonato eta sanlorentzoak, baina aurretik izango da festarako tarte auzoetako jaietan. Iturriotzen, Elkanon eta Andatzen izango dira goiztiarrenak

Ekainaren 21ean hasiko dira Iturriozko sanjuanak. Hogeigarren urtez mus txapelketa jokatu dute Izurtzu jatetxean gaueko 21:30ean hasita. Hurrengo egunean, larunbatarekin, erromeria izango da gauez Kupela taldearekin. San Juan bezperan bazkaria egingo dute 14:00etan hasita Izurtzun eta atzetik Olasto eta Urdangarin bertsolariak arituko dira kantuan. Bertsolarien ondoren erromeria izango da Laja eta Narbaiza trikitilariekin. Iluntzean San Juan sua piztuko dute.

San Juan eguna mezarekin hasiko dute Iturriozko auzokideek, 10:30ean izango da elizkizuna. Meza ostean, 12:30ean, herri kirolak izango dira auzoko gazteen artean. Trontzan, harria jasotzen, korrika, txingekin, segan eta aizkoran arituko dira nor baino nor. Herri kirolak bukatutakoan Zubeldia eta Irazu bertsolariak izango dira kantuan eta atzetik Tapia eta Leturia soinu eta panderoa jotzen. Bazkaritan hasi eta goizaldera arte arituko dira trikitilariak.

Sanjuanak bukatutakoan sanpedroak hasiko dira gurean. Andatzen eta Elkanon, hain zuzen ere. Elkanoko sanpedroak ekainaren 28an hasiko dira txupinazoarekin. Biharamunean, San Pedro egunean, meza izango da 11:30ean. Atzetik patata tortilla lehiaketa egingo dute auzokoen artean eta gero tortilla pintxoak banatuko dituzte. Ostolaza eta Andonegi trikitilariak izango dira lehiaketaren garaian, baita afalondoan ere.

Hilaren 30ean, meza izango da 11:30ean. Segidan, auzoko gazteek eta Izeta II.aren Zarauzko harri-jasotzaile eskolakoek herri-kirol erakustaldia egingo dute. Herri-kirolen garaian Izer eta Alabier izango dira trikitixarekin, baita gauean ere.

Arratsaldeko 18:00etan idi probak izango dira. Hiru idi pare arituko dira lehian: Izetarenak, Olidenenak eta Agustinenak. Festak bukatzeko, uztailearen 6an auzo afaria egingo dute Gazteategi jatetxean Laja II.a eta Narbaiza trikitilariekin.

## LABUR

### Kirola

#### Gipuzkoako sega txapelketa

Ekainaren 23an, Aiako hilerri inguruko zelaian jokatu dute Gipuzkoako ohi-ko sega txapelketako finala. 12:00etan hasita, segalariek ordubeteko lana bete beharko dute. Honako hauek izango dira finalistak: Igor Esnaola Dorronsoro, Juan Jose Lizaso Rezabal, Mikel Garayalde Orbegozo eta Mikel Alkorta Aizpurua.

### Zikloturisten kronoigoera

Ekainaren 30erako, Igo zuk ere Aiako horma lelopean zikloturistetzako kronoigoera antolatu du Aiako Kirol Elkar- teak. Lehenengo txirrindularia Andatzatik 10:00etan aterako da, eta Aiako plazarainoko hiru kilometrokoak egin beharko ditu, %28ko maldak gaindituz. 15 euroko kuota ordaindu beharko da eta herriko produktuak oparituko dituzte. Internet bidez eman behar da izena [www.innvento.com/eus](http://www.innvento.com/eus) helbideko izen ematea atalean.

### Udala

#### Bake-epailerako izen-ematea

Aiako bake-epaile titularraren izendapena bukatze dagoenez, Udalak deialdia egin du bake-epailea eta ordezkia aukeratzeko, datozen lau urteetarako. Herri- tar guztiek dute aurkezteko aukera eta uztailearen 12a baino lehen eman behar da izena udal bulegoetan.

### Aisialdia

#### Igerilekua irekita

Ekainaren 15ean ireki zuten Aiako udal igerilekua eta irailaren 15era arte egongo da zabalik aurtengo denboraldian. Eguneroko 11:00etatik 20:00etara izango da irekita. Sarrerak eta bonoak tabernan erosi beharko dira. Helduentzako eguneko txartelak 5 euro balio du eta 4 eta 15 urte artekoentzat 3 euro. Egun erdi-koa -17:00etatik aurrera-, berriz, 2 euro-koa izango da.

### Deialdia

#### Argazki lehiaketa

Aiako argazki lehiaketa martxan da eta lanak aurkeztu nahi dituztenek, Kultur Etxera eraman beharko dituzte irailaren 30a baino lehen. Aurtengo gaia Santio Erreka eta Andatza auzoak dira: txokorak, pertsonak, etxeak, paisaiak... Bakoi- tzak gehienez lau argazki aurkeztu ahal izango ditu. Informazio gehiago [www.aiako.com](http://www.aiako.com) web-orrian dago.

# Negua joan da-ta

**B**ukatu da futbol denboraldia eta Reala *Champions*-en. Honekin batera hasi da eguzkia laino artean bere lekua egiten ere, aurten izan dugun negu luzeari agur esateko garaia iritsi dela dirudi. Ireki dute herriko igerilekua, bat baino gehiago egongo zen jada noiz irekiko zain.

Eskolako festa ere ospatu dute ikasle, irakasle eta gurasoek. Lehenengo, ikasleek erakustaldia egin zuten, ondoren irakasleek eta amaitzeko andereño Marjeri agurra egin zitzaion. Izan ere, hainbeste urtez Aiako eskolako irakasle izateari utzi eta erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio. Gero, guztiek, frontoian bazkariarekin amaitu zuten festa. Honenbestez, haurrek eta gazteek hartu di-

tuzte udako opor luzeak. Baina festa giroak jarraitu egingo du ondorengo hiru hilabeteetan.

Hasteko, hementxe daude Sanjuanak. Urteko egunik luzeena dela esaten duten honetan, sua piztu eta inguruan dantza egingo dute herritarrek, haur zein helduek. Erromeria gustukoago dutenek ere izango dute Iturriotzen festarako aukera.

Jarraian Sanpelaioak eta Sanpedroak. Azken hauek ere herrian bertan, Andatza auzoan, hain zuzen ere. Bi asteburu jarraian izango dira gainera, San Ferminekin elkartuz. Hala ere, gure herrian

udalekuetakoek egiten duten entzierroa bakarrik ikusi ahal izango dugu. Beraz, entzierroak gustuko dituztenek Iruñekoak telebistaz ikustearekin konformatu beharko dute.

Pare bat asteko atsedenenaren ondoren, berehalaxe izango ditugu Santioak Santio-erreka auzoan eta hauek pasatakoan herriko festak, San Donato eta San Lorentzo jaietan aste gutzirako festa.

Baina konturatzerako badoa uda eta hainbeste parrandaren ondoren... bihar mun galanta! Beraz, uda amaitzeko geratzen diren egunak atsedenerako eta igerilekuan eguzki pixka bat hartzeko aprobetxatu beharko ditugu. Badira egun hauetan kanpora oporretara joaten direnak ere. Zein ederra izango zen hau guztia eguraldi onarekin!



## Txokoak eta jendea 2000. urteko Sanjuanak

Hemen ditugu urte hartako Iturriozko festetako antolatzaileak. Oraindik ere parranda eta antolaketa uztartuz aritzen dira. Behean: Andoni Rezabal, Aloña Arruti, Nerea Lizaso, Mila Orbegozo, Martin Erasun eta Jon Ansorregi. Goian: Eneko Balerdi, Imanol Illarramendi, Ziortza Balerdo, Miren Unsain eta Andoni Larrañaga.

» ORIOKO BASERRIAK



## 22. Mariaerrotaberri

Orio eta Usurbil lotzen dituen errepidearen albo batean dago Mariaerrotaberri; Marrota Berri izenez ere

ezaguna. XVII. mendeko Mariaerrota erre eta handik 40 urtera altxa zuten Mariaerrotaberri. Mariaerrotazaharren moduan, Valdespinako markesa da ezagutzen zaion aurreneko jabea. Haren ondoren, urteetan maizter izan ondoren, baserriaren jabe egin zen Atorrasagasti familia 1990. urtean.

Garai batean baserri lanak egiten ziren Mariaerrotaberrin: haragi eta esnetarako behi eta txekorrek eta oilo

eta oilaskoak hazten zituzten; lurra ere lantzen zuten, besteak beste, sagardotarako sagastiak eta artoa ereinez baratzean. Artoa ehotzeko errotarri txiki bat eta sagarra prentsatzeko dolarea ere bazituzten.

Gaur egun, ordea, jarduera horiek guztiak alde batera utzita dituzte Mariaerrotaberriko bizilagunek.

[ ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN ]

**Azku**  
Tf: 943 13 04 38

**ASADOR XIXARIO**  
Ezako Galleren Kalea, 2  
Tf: 943 830119 - ORIO

**MANTEROLA S/L**  
ESFERA ETA RETENTZIOKO BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa  
Tf: 943 830 743  
Fax: 943 134 834  
E-mail: [tmn@manterola.com](mailto:tmn@manterola.com)  
79819 ORIO - GIPUZKOA

ER  
AENOR kalitate ziurtagiritza



# Kantauri itsasoko autopista: Orio-Candás

## Fiestas del Cristo 1915



San Pedro egunean, meza nagusiaren ondoren, musika kontzertua izango dugu Orioko plazan. Asturiasko musika-banda batek joko du, Candás herrikoak. Asturiarrek Oriora egingo duten kultur bisitaldia Candáseko gizon musikazale batek antolatua da, arbaso oriotarra duen Jose Miguel Karrerak. **Candás eta Orioren arteko lotura** sustatu nahi du.

**TESTUA: J. GENOBA ETAL ITURAIN**  
**ARGAZKIAK: JOSE MIGUEL KARRERA**

**C**andásek 6.836 biztanle ditu, Carreño-ko Kontzejuko hiriburua da eta Gijonetik gertu dago, 15 bat kilometrorra. Tradizioz, arrantza izan da hango ekonomiaren oinarri nagusia, eta arrainaren kontserba-industria. Garai batean, Candásko portua Kantauri itsasoko inportantenetakoa izan zen.

Orduan, euskal arrantzale asko hurbiltzen zen hango kostaldera, hegaluzea-

ren bila, Euskal Herriko kostaldera iritsi baino lehenago. Musika bandak Oriora egingo duen bisita dela-eta, Manuel Ramon Rodríguez Candásko historialariak argitaratu duen publikazioan, dokumentatuta agertzen da 1890ean Euskal Herriko 40 bat arrantza-ontzi zebiltzala uda partean Candásen; bakoitza 15na arrantzalarekin; denera 500 euskal arrantzale. Eta haiek denek gaua Candásen igarotzen zuten. Horrela sortu zen euskal arrantzaleen eta Asturiasko herri horren arteko lotura. Orduan lotu ziren gure arrantzaleak eta hango kontserbafabriketan arraina jasotzen zuten bertako emakumeak. Eta arrantzaleetako baztuk bertan geratu ziren betiko.

Baina aspaldiko urteotan gainbehera handia izan du arrantza-sektoreak han. Gaur egun, turismoak eta ostalaritzak leku handia hartu dute herriko ekonomian, batez ere uda garaian.

### **Euskaldunak Candásen**

Oviedon argitaratzen den La Nueva España egunkariak erreportaje bat plazaratu du aurtengo otsailaren 24an, honako izenburupean: *La Banda de Música vuelve a la mar. La agrupación rinde tributo a las raíces vascas de muchos candasinos con una visita cultural a Orio, 132 años después de su fundación en el seno de la Sociedad de Mareantes*. Elkarte hori herriko arrantzaleen semeak musikaren



Ontzi barruan egiten zuten lo gure arrantzaleek Candásen porturatzean. J.M. KARRERA

balioetan hezteko helburuarekin sortu zen.

Erreportajearen, besteak beste, Candás-ko bizilagun askoren euskal abizenak aipatzen ditu: Artola, Mendiguren, Iriberrri, Echevarría, Izaguirre, Zubicaray, Alcorta, Badiola, Aramendi, Alijostes, Iriondo, Karrera...

### Itsasoko autopista

Xabier Alberdi zarauztarrak idatzi duen *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana, siglos XVI-XVIII* idazlaneko pasarte batean, Joseba Agirreazkuenaga historialariak dio, Kantauri itsasoaren euskal kostaldeko herrietako biztanleentzat itsasoak sekulako garrantzia izan duela historian zehar; jatorri eta kidetasun-sentimenduak sortzeko, jaiotako lurraldeak daukan bezainbestekoa.

Haren ustez, iraganeko giza komunitateak ikertzen dituzten historialarientzat Kantauri itsasoak kontuan hartu beharreko erreferentzia-marko geografikoa behar luke izan; herri eta lurralde bakoitzaren muga geografikoen gainetik.

Kostaldeko herriek itsasoko autopista daukate elkar lotzeko. Itsas autopista horrek eraman zituen Erdi Aroan Asturias aldera euskaldunak balearen atzetik. Gero, XIX. mendearen bukaeran, itsas autopista horretatik joan ziren Candás-era euskaldunen arrantzarako teknika berriak, eta arraina kontserbatzekoak,

“Jose Miguel Genova Leunda 1866an jaio zen Orion, eta, 20 urte zituela, Candás-era joan zen, lanera, xextero eta arrantzale moduan”

“Euskal arrantzale asko hurbiltzen zen hango kostaldera, hegaluzearen bila, eta arrantzaleetako batzuk bertan geratu ziren betiko”

“Candásen euskal abizen asko dago: Artola, Mendiguren, Iriberrri, Echevarría, Izaguirre, Zubicaray, Alcorta, Badiola, Aramendi, Alijostes, Iriondo, Karrera...”

“Euskal kostaldeko jendearentzat itsasoak sekulako garrantzia izan du historian, jatorri eta kidetasun-sentimenduak sortzeko.

Kostaldeko herriek itsasoko autopista daukate elkar lotzeko”

“Autopista horretatik joan ziren Candás-era euskaldunen arrantzarako teknika berriak, eta arraina kontserbatzekoak, han ezezagun zirenak”

han ezezagun zirenak. Edo zenbait ur-jolas ere, esate baterako, herriko festetan kukainaren gainean ahateak harrapatzen ibiltzeko ohitura –1879rako festajolas hori hartua zieten euskaldunei candástarrek–.

Dokumentu zaharretan ikus daiteke Oria ibaiko ontzioletan egindako hainbat arrain-ontzik Candás-era bidea hartu zutela. Dokumentatuta dauden gutxienez lau ontzietako zaharrena Antonio Mutiozabalek 1882an Aginagako ontziola batean eraikia da, eta denboran azkena 1962an Orion egin eta Candásen *Pepin* izendatu zutena.

Candás eta Orio gerturatzeke, Candás-era joandako XIX. mendeko gizon oriotar baten historia ere badago, eta arbaso haren ondoreneko Jose Migel Karrera Genovak garai haren historia gogora ekartzeko daukan grina eta kemena..

### Jose Miguel Karrera

Euskal jatorria duten Candás-ko bizilagunen artean, bada bat hara joandako oriotar baten birbiloba dena: Jose Miguel Karrera. Gizon hori 1866an Candás-era joandako Jose Miguel Genova Leundaren alaba baten seme baten semea da. Lehen abizena, Karrera, aitaren aitarena du, Pasai San Pedroitik hara joandako beste euskaldun batena.

Jose Miguel Karrerak 2012ko uda aldean telefonoz deitu zuen Orioko udal-txera, ea Orioko genovatarren berririk emango ote zioten eskatuz, haien arras-



toa egiten hasteko asmotan. Bizitzak honelako gauzak baititu: telefonoa, udal-txean, Genova batek hartu zion gizon hari: Josune Genovak. *Nik banekien, etxean aitari entzunda, Asturiasen familia dugula, hara joandako arbaso batena. Eta gizon hura xesteroa zela. Horrelaxe adierazi nion. Jose Migueli eta hura harrituta geratu zen.*

Inazio *Kaxkaxuri*, Josunereren aita, arrantzale zela, baporea Candás edo Luanco inguruan lehorreratuta, haien galdera eginda bisitan joan izan omen zen. Jose Miguelek, berriz, gogoan du haurra zela herriko portura joan izana, Orioko familiarteko arrantzaleak agurtzera.

Udaletxera deitu zuen egunetik, asturiarra hainbat aldiz etorria da Oriora, eta Josunereren familiarekin, Orioko genovatarrekin, sortu den harremanaren fruitua da San Pedro egunean, Candásko musika-bandak herriko plazan emango duen kontzertua.

### Asturiarrak Orion

Itsasoko autopistak oriotarrak Candás-  
era eramane zituen bezala, ekarri ditu hainbat asturiar Oriora, gure artean bizitzera. Aipagarria da Oviñana herriaren kasua. Aginaga baino txikiagoko herria izanagatik, hango jende dezente bizi da Orion. Arrazoia da Mariscos Otamendi enpresako aginarrek angulen haztegia jarri zutela Oviñanan 1960 inguruan. Geroztik, lotura horren bidez etorriak dira Orio aldera: Ruben Albuerne eta Adela Busto senar-emazteak eta haien seme Marco, Maria del Mar Gutierrez, Jaime Colado eta Alfredo Iglesias zena -azken honen emazte Vitoria Fernandez Quintanako da-. Eta, hara kasualitate, han bizi da Orioko Arraun Elkarteko medikua ere: Fernando Garcia Herrero.

Baina beste herri batzuetatik etorritako asturiarrak ere badira: Juan Priede zena, Piloña herrikoa; Gumer Arbesu, Collotokoa; Moredako Paco Robles, Luancoko Jose Antonio Rodríguez eta Gijongo Amelia Guerrero zena. Soraya Herranzek, berriz, kontrako bidea egin du eta Oriotik Asturiasko Piedras Blancas herrira joan eta bertan bizi da.

Orioko traineruak arraunlari asturiarrak ere izan ditu. Lehenengoa Enrique López izan zen, 2000. urtean etorria. Handik hiru urtera, 2003an, Castropol-  
lek zortzikoan Oriori Espainiako txapelketa irabazi ondoren, hango hiru mutil etorri ziren, haietako bi asturiarrak: Alberto González eta Bruno Méndez.

Autopista, itsasokoa edo lehorrekoa, bi norabidekoa izan da Asturias eta Orio artean ere.

## CANDÁSERA HARREMANAK INDARTZERA

**A**sturiasko Candás eta Orioren arteko itsas autopistatik berrina etorri zaigun San Pedro eguneko kontzertuaz gain, Orioko oso aspaldiko arrantzaleei buruzko informazioa ere eskuratu dugu.

Orain badakigu 1571ko abuztuan eta urrian hiru dokumentu notarial egin zirela Orion, *Concierno de las balleneras 1571* izenean. Dokumentu horien arabera, Candásko Andres Suarez eta Gijongo Juan Fernández Salado etorriak ziren Oriora jendea kontratatuzera itsas lanetarako, Gijongo beste arrantzale batzuen izenean: *asta catorce o diez y seys onbres para andar a la pesca de las ballenas en esta villa de Gijón los quatro años benideros*.

Abuztuan bi gizon besterik ez zituzten kontratatu, aita-semeak, Orioko gainerako baleazaleak Terra Nova aldean zebiltzalako balearen arrantzak haraino eramanda. Asturiarrek Orioko bi aita-seme haiei boterea eta ahalmena eman zieten, arrantzaleak Amerikatik bueltatzen zirenerako, haien izenean erreklutatzeke: *asta tres feridos e arponeros y doze onbres marineros, buenos palatores y espalderos y entre ellos un talayero*. Eta horrelaxe gertatu zen urriaren 22an: arrantzale oriotarrak Terra Novatik etorrita etxeratu zirenean, kontratuak izan ziren Gijoneko kostaldera joateko balearen arrantzan egitera.

Gaur egun, garai hartan ez bezala, lehorreko autopista azkarragoa da itsasokoa baino, Candás eta Orio gertuago daude garai batean baino, besteak beste arbaso oriotarra zuen Jose Miguel Karrerak bi herriak hurbiltzen egindako lanagatik. Eta gertutasun hori are gehiago estutzera joango da abuztuan Orioko kultur ordezkari bat, hango herriko festetara. Candásen izango dira Harribil taldeko dantzariak, Orioko Arraun Taldeko arraunlariak, Orioko Danbolin Musika Eskolako trikitalariak, udal ordezkari batzuk eta Pello eta Nikolasa erraldoiak abuztuaren 2an, 3an eta 4an.

### Genova Oriotik Asturiasera

Genova oso abizen ezaguna da Orion. Herrian asko dira genovatarrak. 1919an Manuel Olaizolarekin Donostiako bandera irabazi zuen traineruan agertzen da Genova bat: Hilario Genova, 1921ean beste bat: Eugenio, eta 1923an bi: Eugenio eta Jose. Auskalo noiz eta nondik etorri ote zen Oriora lehenengoa! Abizen klaseagatik ematen duenez, italiar abentura zaleren bat izango zen, gure arbasoengana hurbildu zena.

Oriotik Donostiara ere joan ziren genovatarrak. Haietako bat, Eulogio, arraunlari handia izan zen 80ko hamarkadan, nazioarte mailakoa. Beste Genova bat, Serafina Genova Treku, Argentinara joan zen bizi izatera, bere senar Jose Benito Lertxundi eta lau seme-alabarekin, 1940 aldean, 1936ko gerra bukatu eta bigarren mundu gerra hasi zenean.

Asturiasko Candás herrian ere badira genovatarrak. Baina han, hemen ez bezala, badakite abizena nondik joan zaien: Oriotik. Hango herritar batzuek badakite 1886an Orioko gizon bat joan zela Candásera, gizon hura arrantzalea eta xesteroa zela... Gizon hura Jose Miguel Genova Leunda zen.

### Genovatarren familia Candásen

Jose Miguel Genova Leunda 1866ko uztailaren 24an jaio zen Orion. Bederatzi senideko familiako bosgarrena zen. Hauexek haien izenak: Josefa Luisa, Jose Manuel, Maria Juana, Jose Antonio, Jose Migel, Maria Teresa, Josefa Hemiteria, Josefa Romana eta Maria Hilari Inocencia.

Erdi-erdikoa, Jose Miguel, 1886an, 20 urte zituela, Candásera joan zen, lanera, xextero eta arrantzale moduan. Herrian begirune handia omen zioten, *el señor Miguel* zen han. Ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen, bertakoentzat *los cesteros*. Haietako hiru, haur zirela hil ziren. Beste bietako baten ondorengoa da Jose Miguel.



# Putxu bakon eta ixun bat zen

**E**uskararen erabilera jaitsi egin da Orion. Euskaraz bizi-bizi eta castellanoz *raka-raka* egiten dugula dio blogean Jon Agirresarobe euskara zinegotziak. %66k erabiltzen dugu euskara eguneroko gure zereginetan. Gero eta gutxiago. Emaitza kezagarri honen aurrean zenbait pasarte datozkit burura.

Iñigo Muguruzak, Irungo musikariak, esan zuen, euskaraz ez zekitenean ere euskaraz abesten zutela etxean. Urkoren *Euskara putxu bakon eta ixun bat zen*. Guk ingeleseko kantuekin bezala, ulertu gabe baina kantatu, auan autxueri uatxuo!

Euskara ikasten ari direnek sekulako garrantzia ematen diote euskaraz pentsatzen edo euskaraz amets egiten hasten diren uneari. Amets Arzallusek zion *herri hau euskaraz pentsatzen ez baldin bada, beharbada herri bat izango da, baina ez da nire herria izanen*.

Arzallusek Korrikako mezuan

irakurri zuena *ama hizkuntza ez da amaren magalean jaso genuen hura, ama hizkuntza da enetzat pentsatzeko baliatzen dugun hizkuntza... eta norbaitek esaten badizue zuek euskaldun berriak zaretela, zuek esaiozue zaharra izatea ez zaiola inori gustatzen*.

Koldo Mitxelenaren esaldia da *egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria*. Euskaraz hitz egiten zuten lehen oriotarrek komunikatzeko tresna bat utzi ziguten eskura. Geroztik Orion denetarik gertatu da, baina euskarak hemen dirau. Oriotarrok euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko beharra dugulako.

Iñaki Arruti Lasarteko euskara teknikariak esan zidan behin euskara

***'Euskararen alde zer egin behar diagu? Zer egin beharko diagu ba? Hitz egin!'***

teknikariek inguruan ba omen dutela indar elektromagnetiko bat edo... zenbait euskara teknikari konturatuta daude, beren presentziak inguruko elkarrizketatan hizkuntza aldaketa eragiten duela. Erdaraz ari direnak *bazpare* euskarara pasatzen direla. Kontuz! Jabi

Zabaleta dator, orain euskaraz! Euskara teknikariak euskararen inspektoreak, poliziak edo zigortzaileak balira bezala.

Euskaraz amets egiten dugunok, euskaraz pentsatzen dugunok, ama hizkuntza euskara dugunok, euskara putzu sakon eta ilun bat zen abesten dugunok, euskara teknikariaren presentziaz hizkuntza aldatzen dugunok... euskaraz bizi-bizi egiteko nahia sentituko al dugu Orion! Euskaraz raka-raka egitekoa.

Lazkaotxikiri ere galdetu omen zioten *euskararen alde zer egin behar diagu Joxe Miel? Zer egin beharko diagu ba? Hitz egin!*



**www.karkara.com**  
Atxikiak, egokitak, sariak, oporak, arropak...  
Fresko-fresko, zuretzat!

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Santi Barranco aseguru agentea  
Arizaga 2. 2. ezkerria ORIO  
TL: 616 581 398 - 659 216 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com  
**SEGUROS BILBAO** | Grupo CATALANA OCCIDENTE

<b>karkara</b> Karkara aldizkariak	 Eta Arkupe elkarteak
 Karkarako laguntzaileentzat	 saria dute
<b>30 €</b>	Arkupeko dendetan gastatzeko

Ekaineko sarituak:

**Monica Igartua**  
(Izarra arropa dendan)  
**Jose Migel Romero**  
(Orio's shop-en)

# Aktibistak behar ditugu



aur egun, euskaraz bizi nahi duenak aukera ugari ditu Orion bere bizimoduaren parte handiena euskaraz egiteko, aparteko arazo handirik gabe;

baditugu euskarazko hezkuntza, euskarazko komunikabideak, administrazio –neurri handi batean– euskalduna, euskara ikasteko erraztasunak...

Nahi duenak, beraz, badu aukera; baina, hain zuzen ere, nahi izate horrek sortzen dizkigu lanak.

2011ko otsailean Orioko kultur etxean egindako *Orio. Euskarazko arnasmune sendotu* jardunaldiaren ondorio nagusietako bat hau izan zen: herritarren azken urteotako lanaren bitartez, lortu dugu gure gazteek euskaraz *normal samar* bizitzea eta beren ohiko bizimodua batez ere euskaraz izatea, beren inguruko ekosistema euskaldunear mugitzen direnean; baina, behin hortik ateraz gero, oso erraz egiten dute gaztelaniara

salto, ez dutelako barneratuta euskararen aldeko jarrera kontzientea. Orion bizi daitezke euskaraz jarrera kontziente hori gabe ere; baina, kanpora doazenean –Donostiara, Bilbora, unibertsitatera, lanera...–, braust egiten dute hizkuntza-aldaketa, tresna ideologikoak falta zaizkielako euskarari eusteko.

Orioko euskaldun guztiok gaztelaniaz ere badakigu eta, hortaz, aukerakoa dugu hori –ere– erabiltzea gure eguneroko jardunean. Horrez gain, gaztelaniaren presentzia handia da bizi dugun gizarte globalizatuan eta egunero sartzen zaigu etxera –batez ere, telebistaren bidez; baina, gero eta gehiago, baita bestelako euskarrien bidez ere: interneta, sare sozialak...–. Neurri batean, gaztelania ere normaldu egin zaigu, etxekotu. Baita gurea bezalako herri txiki euskaldun hauetan ere. Horren ondorio da aurten ikusi ahal izan duguna, maiatzean egindako euskararen kale neurketan: Orioko pertsona helduen arteko elkarriketen ia erdiak gaztelaniaz egiten dira gure kaleetan.

Euskaldunak euskaldunari gaztelaniaz egitea *normal* ikusten dugu dagoeneko.

Euskararen erabilera suspertu nahi dugunok motibazioan eta euskaldunen arteko ohituretan eragin behar dugu eta, horretarako, euskara erabili nahi duten herritarrak behar ditugu, ahal den guztietan euskaraz egiteko jarrera kontziente eta proaktiboa izango dutenak; alegia: euskararen aktibistak behar ditugu.

Euskararen aktibista ez da, inolaz ere, kalean beti kopeta belztuta, haserre, dabilen euskalduna; euskararen aktibista euskaraz bizitzeko aukera kontzientea egin duen pertsona baizik ez da, ahal duen guztietan eta ahal duen guztiakin euskaraz egiten duena, normal, natural eta bizi-pozez.

Euskararen aktibista batek sekulako eragina dauka bere inguruan. Eta aktibista dozena pare bat juntatu eta bizi-bizi koordinatuz gero... badaezpadako iraulia emango diogu euskararen egoerari herrian!

## Orioko kirola osasuntsu

Kirola egitea osasuntsua da. Baieztapen hori askotan entzun dugu han eta hemen. Eta bai, kirola egitea osasuntsua da, baldin eta aukeratu dugun kirol erakunde osasuntsu badago. Osasuntsu egitura alde-tik, osasuntsu pentsatzeko moduan. Orion, badirudi bazkide gehien dituen erakundeak, kiroldegia, osasuntsuago izango dela aurrerantzean Udalak hartu berri duen erabakia eta gero. Ea horrela den; bide onetik goaz.

Gainontzean gurean osasuntsu dagoen kirola, eta harror esan dezakeguna, nesken kirola da. Neska gazteena. 18 urtez azpiko neska oriotarrek sekulako urtea egin dute hainbat kirolean. Horren harira omenaldia egingo die guztiei Udalak ekainaren 30ean, iluntzeko 20:00etan, udaletxean. Azaldu zaitezte.

Erreferente garelara esatea gehitxo izan daiteke, baina oso pozik egon gaitezke emakumeen kirolean azken urteotan ematen ari garen pausoe-ekin. Emakumeen kirolean eta gazteen kirolean. Babes gehien behar duten horiekien sekulako lana egin da gurean. Emaizta onak ez dira kasualitatez lortu. Lanean gogor aritu diren asko etortzen zaizkit burura; gehienak eskola kirolean hasi eta hezitakoak.

Horiek dira benetan mi-matu behar diren kirolariak, adinez txikiak. Hasi erakundeetatik eta babesleetaraino, herritarrengandik pasata.

**Euskararen erabili nahi duten herritarrak behar ditugu, ahal den guztietan euskaraz egiteko jarrera kontziente eta proaktiboa izango dutenak; alegia: euskararen aktibistak behar ditugu**

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI  
TF / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orrio (Gipuzkoa)



**KOLON TXIKI**  
 zerbitzua  
 jiteak.com



Herriko Euzarantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

943 572 870



**KOASTA**  
 Wifi zerbitzua  
 Kopak, gau giro aparta...

**ITZALA**  
 kartetan jokatze  
 atarria  
 tel. 943 83 12 59

**Gabon**  
 TABERNA  
 plater konbinatuak + pintxoak  
 Tfnoa: 943 83 06 09

**Dorronsoro Denda**  
 1963tik zure ondoan  
 BETIKO DENDA  
 Tel 943 83 09 37



Igo zaitetz haize berrietara!

**Galerna I**

943890416 - 677149934  
 galerna1orio@hotmail.com

**azkue**  
 karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
 Tf/fax: 943 83 51 86

20809 Aia-Orio  
 Carroceriasazkue@hotmail.com

Carmen eta Txomin  
 ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**uranga**  
 autozerbitzua



 **Aliprox**

Fucko Gurdiari Kalea 13-15  
 ORIO  
 943 83 38 75

**LUXARBE**  
 igeltseritza

Igeltseritza orokorra,  
 denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
 konpromisorik gabe

Lan txukuna  
 eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

  
**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**BERME Aholkularitza S.L.**  
 Zerga eta lege aholkularitza

- ENKARGATUTAKO AHOULKARITZA
- ARRANDEGIARREN IRISGAIA
- ARRANDEGIARREN JIRIBERRIA
- LAN-IRISGAIA AHOULKARITZA
- ENKARGATUTAKO AHOULKARITZA
- AHOULKARITZA AHOULKARITZA

Jokin Martorena Etxepare  
 tel. 943 83 39 33

Berme, 11 kalea  
 48100 Berme (Bizkaia)  
 S. 943 83 39 33  
 www.bermeaholkularitza.com



 **24 ORDUKO ZERBITZUA**

**IGLESIAS**  
 SARRAILAGILEAK  
 WWW.IGLESIASCERRA.EROS.COM

Javier Iglesias Fernández  
 637 723 308  
 iglesiascerra@eros.com  
 20810 ORIO

Kinkladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonet.com/argine  
 Tel. 943 13 48 89

7.5eko DESKONTUA FAMILIA  
 UGARJEN TXARTELAREKIN

**ARKAITZ**  
 Taberna

Pintxoak,  
 plater konbinatuak  
 eta ogiarteko mundialak

ABESLARI KALEA, 4  
 TEL: 943 83 16 57

**PIZZERIA**



**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

# Gaia emanda Zaindu Karkara

*Azken aldian matraka eman eta eman ari gara. Euskarazko komunikabideen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Maite al duzu Karkara? Zaintzen al duzu?*

## Zaindu maite duzun hori

**K**ARKARA eta Berriaren azken kanpainaren eslogana asko gustatu zait, izen bereko Ruperren kanta gogoko dudan bezain beste. Negu ilun eta elurtsua zen KARKARA eta Berria laguntzaile bila zebiltzala-eta egindako lehenengo bideoa ikusi nuenean. Badirudi, aurten ez garela negu ilunetik irtengo, Europa iparraldean, behintzat.

Nire alemaniar hizkuntza liburuak dio Espainia Europa hegoaldean kokatzen dela, eta ez nuen inoiz horrela ikusi, beti mendebaldean zegoela izan da nire ikuspuntua. Euskal Herria ez du aipatu ere egiten. Nire etxean, ordea, KARKARA egongelako mahai gainean dago beti, eta gustura esplikatzen dizkiet galdetu eta entzun nahi duen lagun orori gure herriko egoera eta kontuak.

1993an grabatutako *Euskaraz Gazte* kanpainako bideoa ere lagun artean ikusi dugu. Korrika 18-rako aurten ezin izan dugu ezer lotu, baina hurrengorako bizkarrekoak listo izango ditugu!

Garai zailak ditugu. Diru laguntza eta lan murrizketak besterik ez daude titularretan, baina gauza garrantzitsuak direnak –maite ditugunak– zaintzen ez baditugu, nork zainduko ditu? Inposatzen dizkiguten aldaketa, erreforma eta erabakiekin, noiz arte jarraitu behar dugu haiek onartzen? Horien guztien gatibu izan gaitezke, edo aldatzen saiatu. Herrigintza herria herritik eraikitzea da, eta nik posible dela sinesten eta parte hartzen dut.

Orioko herrigintzan parte-hartze itzela du KARKARAK. Gure herriko berriak eta iritziak jasotzen eta bertaratzen dizkigu bi astean behin etxeko postontzian, eta gertatu ahala web orrian. Azken hori kolorez eta lorez bete berri du Maialenen blogak; eta argazki bildumek eta bideoek albisteen informazioa borobiltzen dute! Gainera, gai berdinekiko jendeak dituen iritzi ezberdinak ezagutzeko parada ematen du; hau guztia euskara hutsean.

Azken finean, Orion egunerokoan erabiltzen dugu gure hizkuntza, berbetan, irakurtzen, kantuan... idazten

**Askotan, norbaitek laguntza eskatu arte ez gara konturatzen laguntza behar duenik. Nik ahal dudan heinean laguntzen ditut nire ingurukoak; berez dator kidan zerbait ote, edo bizitzan zehar ikasi dudana, nork jakin!**

probatzera ere animatzen zaituztet! Hala ere, euskararen erabilera –batez ere helduen artean– jaitsi dela ondorioztatu dute maiatzean egin berri duten azterketan. Dakienak erabiltzen ez duenean, galdu egiten dela zioen Artzek, eta oraingo gazteek heldu direnean oraingo helduek hartu duten joera hartzen badute, bizi-iraupen laburra izan dezake euskarak geurean. Edo hori ere aldatuko dugu?

KARKARA eta Berria laguntza eske agertu zaizkigu. Gogoan dut ikasle garaian ni ere jardun nintzela atez ate, Orio eta Aiako etxeetan KARKARARAKO diru-laguntzaile berrien bila. Askotan, norbaitek laguntza eskatu arte ez gara konturatzen laguntza behar duenik. Nik ahal dudan heinean laguntzen ditut nire ingurukoak; berez dator kidan zerbait ote, edo bizitzan zehar ikasi dudana, nork jakin! Kanpoan urteetan bizi izan naizelako, agian, asko baloratzen ditut euskal hedabideak, batez ere herrira gerturatzen nauen KARKARA. Albisteak, argazkiak –hauek paperean nahiago hala ere!–, elkarrizketa eta erreportaje interesgarriak...

Eta zuk, irakurle, hausnartu al duzu KARKARAK eta Berriak zer ematen dizuten eta nola lagun ditzakezun? Maite ditugunak zaintzen baditugu, maite gaituztenek gu ere zainduko gaituzte!

Nik, maite zaituztet!  
<3 Ich liebe euch! <3.

**Onetsine Arrizabalaga**  
Bikimikaria

HERRIGINTZA  
PATXI OLIDEN  
HERRIGINTZA

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripa, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketak...

**PATXI OLIDEN**

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361  
www.podologia-oinarri.com

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA



Jaialdi bukaeran dantzari guztiek elkarrekin egin zuten dantza. MUNIA LARBURU

## Aurten ere bai!

### Kritika Dantza jaialdia

**Dantzariak:** Danbolin musika eskolako ikasleak.  
**Irakaslea:** Ander Errasti.

Larunbata, ekainak 15, 16:48ak eta kiroldegi ingurua jendez gainezka; ikuskizunaz gozatzeko ahalik eta lekurik onena hartzeko zain. Ateak ireki bezain pronto bete ziren harmailak eta askok zutik ikusi behar izan genuen. Baina ezzen oztopo izan ikusi eta gero. Zoragarria benetan!

Txikienek hasi zuten ekitaldia, kiroldegia kolore bereziz betez, jantzi ilun eta koloretako zapiekin. Prestatutako abesti *martxoso* eta dantzek guztiok hunkitu gintuzten irribarrea ateraz.

Gazteen saioa etorri zen gero. Aurten aldaketa nabarmena sumatu dugu: Madonarekin ezagun egin den Kalaka taldearen abestiarekin azaldu ziren dantzariak: *aldapeko sagarraren adarraren puntan* eta ohiko agurra ez zuten dantzatu. Ondoren, Korrikaren koreografiak momentu hunkigarria ekarri zuen, hainbeste dantzari euskararekin bat eginez ikusteak eta sentitzeak bati baino gehiagori malkoak ateratzea lortu zuen. Jarraian talde bakoitzak bere dantza eskaini zigun; nagusienek dantza tradizionalaz gain, beren koreografia alai eta esanguratsuak.

Aurtengoak kolore berezia izan du. Urtetan ikusle izan garenok guretzat hain bereziak diren txiki edo gazteak

ikustera joaten gara, beren ilusioak ez zapuzteko. Baina larunbateko ekitaldiak eszenatoki atzea ere dantzan jarri zuela ziur nago. Euskal herriko tradizioa ahaztu gabe, gaur egungo kutsu bereziarekin nahastutako ekitaldi goxo ikusteko eta entzuteko aukera paregabea izan genuen, zuzeneko musikak ere ikutu berezia eman baitzion. Segida egokia izan zuen jaialdiak eta ikusleor gorpuzak dantzan eta emozioz beterik jartzea lortu zenuten. Horren adibide, amaierako txalo zaparrada. Beraz, Danbolin Musika eskola eta Ander, jarraitu jendea dantzan jartzen eta herritik herriarentzat hezi eta hazten. Zorionak guztioi!

[ MUNIA LARBURU ]

**Ikasleak idazle**  
Celeste Herrera

## Sanpedroak

**T**gun gutxi barru San Pedro jaiak hasiko dira, eta, jada hasi da herria festetarako prestatzen.

Jende askok jai hauek gogoz hartzen ditu, ikasturte amaiera eta udarari ongi etorria emateko aukera ona delako.

Herrian ekintza asko antolatzen dira: txikienezko jolasak, gazteentzako musika taldeen kontzertuak,

helduentzako

ikuskizunak...

Hala ere, kontuan izan behar dugu beste urteetan gertatutakoa:

kaleetako zikinkeria eta jendeak puskatutakoak nabarmenak izan baitira.

Aurtengo festak ahaztezinak izan daitezen, zaindu dezagun herria!

Ondo-ondo pasa San Pedro jaiak!

**Aurtengo festak ahaztezinak izan daitezen, zaindu dezagun herria! Ondo-ondo pasa San Pedro jaiak!**



libe  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sarriera Arantzale kaleatik ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com



## » HANDIK ETA HEMENDIK



“Oinezkoak eta bizikleta zaleak sarituko ditugu. Zarauzko trafikoan, automobil pribatuak salbuespen izan behar du herriko kaleetan.”

**Jose Luis Illarramendi**, Zarauzko alkatea, Diario Vasco egunkarian, 2013ko ekainaren 6an.

“Dantza egitea gustatzen zaionari aurrera jarraitzeko esango nioke... Badakit ez dela bide erraza, baina saiatzen denak gauzak lortzen dituela uste dut.”

**Ander Errasti**, dantzaria, Urola Kostako Hitzan, ekainaren 13an

## » OSPAKIZUNA



## Gurrutzagatarrak elkarrekin

Familia handitzen doala ospatzeko bildu ziren elkarrekin ekainaren 8an Gurrutzaga sendikoak. Izan ere, Amaia Irastorza ezkondu zen egun horretan Iñigo Gurrutzaga. Behin San Martin ermitan senar-emazte bihurtuta, Balea hotelean bazkaldu zuten guztiek bapo-bapo. Goizean hasita, ospakizunak luze jo zuen eta ilargia ere animatu zen festara. Egun polita pasa zuten denek.

## » ZORITXARRAK!

## Gazi-gozo triatloiar

**L**an handia ematen du parte-hartze handiko proba bat antolatzeak; are gehiago, nazioarteko izatera baldin badu. Horrelakoxea da Zarauzko triatloia ere. Aurtengo edizioan, gainera, gonbidatu ez dituzten eurria eta marmokak izan dira probako protagonista. Hala eta guztiz ere, aurrera egin dute eta txalotzekoa da alderdi horretatik.

Dena den, hobetzeko kontu garrantzitsu bat ere badute antolatzaileek: probaren biharamunean plastikozko bilgarriz zikinduta zeuden errepide bazterrak. Irtenbidea bilatu behar lukete: botatakoa jaso; edota Suitzan egiten omen bezala, botatzea debekatu.



**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
Fileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldioko zerbitzua
- Belatorio gelak
- Koroioak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 83 49 37 / Fax: 943 83 49 41  
e-mail: harraspil@harraspil.net

**URAITZ**  
Larintologia  
jantzi sagarrak

Endaia, 3 Tfn: 943 83 18 97

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel: 913 13 29 01 Magikorta 600 70 52 27

**ODITZ**

Donostia zahaleko aintzak  
guztiek eta onakumeentzako

tel. 943 83 00 89

**MIRANDA**  
ARITZ LARAK

larima, ate, leiho, eskalera...  
behar diren arritz lanak  
egingo ditugu

Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUZ



1986an, zaldi gainean Martin Arruti; behean, Jesus Mari Atorrasagasti; eta toreroa Pepe Moreno. LUIS ESNALEK UTZIA

# Sanpedrotako zezenak

## Oroimenaren kutxa

**O**rion askotan egin da sokamuturra festetan. Zezenari soka lotu lepoan eta jendea kalean gora eta behera ibili ohi zen korrika. Inoiz susto handi askoak hartu ere bai zenbaitek.

1945 inguruko sanpedrotan, sokamuturrean zezenak, oriotar festazaleengandik ihesi, salto egin zuen putzura, Axentxio Txankaren bertsoak ederki azaltzen digunez: *zezen gorri ori zan oso indartsua, mollako alderditik egin zun zuluua; kofradiko arranplan sartu zan putzua, igalariya ere ez oso mantsua, marditarrek bezela artu zun ba-*

*ñua. Ontzi txiki batekin zuten arrapatu, bi adarretatikan gogor amarratu; ala ere zezena etzan sosegatu, legorrian bezela ezin borrokatu, ondotik jo eziñak zuen izorratu.*

Beste urte batean, zezenak trenbidetik barrena egin zien ihes Orioko *zezenzale* sutsuei.

Urte batzuk geroago, berriz, 1981eko sanpedro festetako azken egunean, Udalak antolatuta, herri afari bat egin zen hondartza aldean. Herritarrek 300 pezetaren truke, sardinak, txuleta, ogia eta sagardoa edo ardoa izan zuten. Eta afaldu ostean, musika. Jende asko izan zen. 300 botila ardo, 100 botila sagardo, 100 kilo sardina, 100 ogi..., afari hartako datuak. Eta haragia? Horixe da, ba, afari ha-

ren berezitasuna: okela bi egun lehenagoko sokamuturrean kalez kale korrika ibilitako bi bigantxena zen.

Urte askoan festak antolatzen ibilitako Jesus Esnali bururatu zitzaion ideia. Salamancara joan eta handik ekarri zituzten animaliak. Alokairuan 50.000 pezeta ziren; erosita, berriz (ekartzea barne): 110.000. Erostea erabaki zuten, ekarri, sokamuturra egin eta, gero, herritarrek jatea. Zezenak alkilatzetik eroatera zegoen aldea afaltzeko txartelak salduta kitatu zuten. Bi urte pasatxo zituzten bigantxek 214 kilo haragi eman zuten, parrillan erreta: samurra eta zaporetsua.

[ IÑAKI TURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

■ Leize Saizar Berasaluze, Orion, ekainaren 9an.

## » EZKONDUTAKOAK

■ Andoni Eizagirre Aduriz eta Goizane Laskibar Gorriti, Orion, ekainaren 15ean.


■ Amaia Irastorza Egea eta Iñigo Gurrutxaga Gurrutxaga, Orion, ekainaren 8an.

## » HILDAKOAK

■ Martzelina Arruabarrena Zubiria, Orion, ekainaren 11n, 87 urte.

■ Ricardo Moreno Martín, Orion, ekainaren 6an. 92 urte.

Eskela edo urteurrenko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



Ille gpaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**LURDES**  
Ille gpaindegia  
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LOBETXU** JATEKIA  
Eusko Gudari, 18 - Tel. 943 83 00 07

Lizaso dekorazioa  
Eusko Gudari, 46  
Tel. 943 83 07 64 Fax: 943 24 87 18



# “Pertsonetan bezala animalietan ere geriatría gero eta garrantzitsuagoa da”

**Marco Villén eta Mikel Escuder**

Albaitariak

Marcok eta Mikelek Katu Horia albaitaritzza klinika ireki zutenetik pasa dira 11 hilabete. Horrelako zentro baterako herri txikia izan arren, txakurren portaera aztertu eta akupuntura zerbitzua eskaintzen dutenez, beste hainbat tokitik erakartzen dute jendea.

## IRATIAGIRREAZALDEGI

Etxeko animaliak dituzte paziente: txakurrak, katuak, untxiak, hudoak, aku-riak... Txakur zaunkei erantzunez, Marcok elkarrizketa utzi eta ia amaierara arte haiekin egon behar izan du Mikelek albaitariaren argibideak eman bitartean.

### Animalien osasunak badu gizakienengan eraginik?

Mikel Escuder: Gaitz edo parasito batzuk gizakiontzat oso kutsakorrak dira. Animalien kakak kaletik eta lorategietatik jasotzeaz jendea gero eta kontzientziatuago dago. Hala ere, jendeak dio kaka lorategietan desegiten dela eta ongari funtzioa duela, baina belarra moztan dutenak zikintzeaz gain, parasitoak pilatzen dituzte. Saiatzen ari gara gorotzak biltzeko poltsa bereziak lortzen.

### Jabeak ohartzen al dira duen eraginaz?

M.E.: Orain dela 20 urte oso-oso gaizki zeudenean eramaten zituzten klinikara; gaur egun, berriz, arraro sumatu ahala. Frogak ere gehiago egiten ditugu: erradiografiak, odol-analisiak, ebakuntzak... Txakurrei aurpegian muxu ematea ez dela komeni jakin behar dute umeek, aurrez beste txakurrak miazkatu baditu arriskutsua baita. Bestalde, katuen toxoplasmosia dela-eta ez da beharrezkoa katu kanporatzea; kontrolatuz gero nahikoa da, emakumea haurdun badago ere.

### Zein dira gaixotasun ohikoak?

M.E.: Beherakoa, botaka egitea, herrena, gihar eta artikulazioetako minak. Artrosia eta bihotzekoa ere beste gaitzak baino ohikoagoak dira, urte gehiagoz bizi baitira. Pertsonetan bezala animalietan ere geriatría gero eta garrantzitsuagoa da.

### Tratamendu bereziak egiten dituzue.

M. E.: Etologiak animalien portaera aztertzen du. Esaterako, animalia beti jabeari tiraka edo beste animalien kontra ibiltzen bada, Marcok esaten du zein den arazoa eta nola konpondu daitekeen. Gero jabeek erabakiko dute berek egin edo hezitzaile batengana jo. Akupunkturak eta omeopatiak, artrosiarekin, esaterako, oso emaitza onak ditu.

Lehen albaitariarengana etortzerako animalia aspirina, ibuprofenoa... ematen zizkieten. Orain, aurretik etortzen dira, botika horietako batzuk oso toxikoak direlako. Guk askotan pertsonentzako botikak erabiltzen ditugu merkeagoak direlako, baina dosiak ongi neurtuta.

### Orion jabeek portaera berezirik al dute?

**“Umeek jakin behar dute txakurrei aurpegian muxu ematea ez dela komeni, aurrez txakurrak miazkatu baditu arriskutsua da”**

“Orion ez dago txakurren arteko gatazarrik ez baitaude aske zaintzarik gabe. Azkenaldian txakurkume gehiago ere badago”

Marco Villén: Ez dago txakurren arteko gatazarrik, ez baitaude aske zaintzarik gabe. Azkenaldian txakurkume gehiago ere badago; badirudi bikote gazte askok hartu dituztela txakurrak.

### Zein dira animaliak zaintzeko oinarriko baldintzak?

M.V.: Kontuan hartu behar da animaliak direla eta ez gauzak; eta zein erako animalia den. Izaera beharrei ere erreparatu behar zaie. Txakurra, esaterako, etxetik atera egin behar da, jendearekin edo beste txakurrekin harreman gehiago izango du... Elikadura, osasuna eta garbitasuna ere zaindu behar dira. Etxeko animaliak, batez ere, jabeak zaintzen ditu kaparrak edo zizareak izan ez ditza-ten. Baserrietakoetan kontrola beharrezkoa bada ere, kanpoan egonik, bali-teke hortaz gutxiago arduratzea.

### Orion egiteko txakur-krosa prestatzen ari omen zarete.

Mikel: Asmoa da oraindik. Txakur-kros hau ez da ligaren baitan sartuko eta jasotako dirua Etxauriko animalien babeserako zentruari laguntzeko izango da.



KARKARA

## » AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Saltzeko**

■ Hozkailu berria salgai. Orain dela hiru hilabete eresia. Tf: 626 018 292.  
 ■ Kia Carens 1.8 monobolumena salgai. Matrikula: BVV. Tindatutako beirak, parrilla, kutxa ditu. Erabat txukun. Asegurua 2014ko martxora arte. 2.500 euro. Tf.: 674 076 785

**Alokatzeko**

■ Etxebizitza hartuko nuke errentan abuzturako. Ezinbestekoa igogailua izatea. Tf: 616544478

**Lan eskaera**

■ Edadeko gizonezkoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest.

Gizon gaztea, arduratsua; zaintzan esperientziaduna. Tf: 632 569 121.

■ Edozein lan egiteko prest nago 10:00etatik aurrera. 666 116 641  
 ■ Umezain lanetan aritu nahi dut udaran. Arratsalde edo goizez. Tf: 671 234 406  
 ■ Edozein lan egiteko prest, goizez edo arratsalde. Esperientzia zabala umeak zaintzen, garbiketan eta sukaldian. 661 231 109

**Lan eskaintza**

■ Emakumea behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf: 650 495 160 -Iñaki-.  
 ■ Uda garaian nekazal-turismoan lan egiteko

persona bat behar dut. Ingelesez maila ona izan behar du. Tf: 669 781 963.

**Erosteko**

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badauka hobe. Tf.: 615 790 965.

**Galdutakoak**

■ Haize bolada batek Mayoral markako 2 urteko ume baten txaketa zuri bat eraman zuen. Malen izena darama. Aurkitu duenak deitu 669 461 449-ra mesedez.

**Bestelakoak**

■ Uztailean Brain Gym ikastaroa LHkoentzat. 655726291 -Irkus-.

## » ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
21	03:04 eta 15:32	09:11 eta 21:40	
22	04:00 eta 16:24	10:03 eta 22:33	
23	04:51 eta 17:14	10:53 eta 23:24	
24	05:41 eta 18:03	11:42 eta ____	
25	06:30 eta 18:51	00:13 eta 12:30	
26	07:20 eta 19:40	01:03 eta 13:19	
27	08:09 eta 20:30	01:52 eta 14:08	
28	09:01 eta 21:23	02:43 eta 15:00	
29	09:56 eta 22:20	03:36 eta 15:55	
30	10:56 eta 23:23	04:33 eta 16:55	
01	12:02 eta ____	05:35 eta 18:02	
02	00:31 eta 13:10	06:39 eta 19:11	
03	01:40 eta 14:13	07:42 eta 20:14	
04	02:41 eta 15:07	08:38 eta 21:09	
05	03:31 eta 15:52	09:26 eta 21:55	

## » ZAINTZAKO BOTIKAK

## EKAINA

- 2lean, Azaldeg.
- 22tik 28ra, Lasa.
- 29 eta 30ea, Iriarte.

## UZTAILA

- 1ean, Etxeberria.
  - 2an, Gallo.
  - 3an eta 4an, Mutiozabal.
  - 5ean, Larrañaga.
  - 6an, Mutiozabal.
  - 7an, Etxeberria.
  - 8an, Gallo.
  - 9an, Etxeberria.
  - 10ean eta 11n, Zulaika.
  - 12an, Mutiozabal.
- Gaueko zaintza: Iriarte.

- **Azaldeg:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilarxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

## 4. orrialdetik dator

**Kooperatiba berriari buruz**

Hamasei hilabete pasatu dira gure Kooperatibako Batzordeak herriko denda bakarra herrigunetik ateratzeko bere nahia adierazi zuela Batzar Nagusi batean. Bere ideia truke bat egitea zen: plaza-ko eraikin osoa futbol zelaiaren ondoan egingo litzatekeen eskolaren azpiko lokal batengatik. 360 metro koadroko lokala 750 metro koadroko plazako eraikin baten truke.

Hainbat izan dira orduz geroztik kalean entzun ahal izan diren zurrumurruak; egia asko ere bai tartean, seguruenik. Baina abuztuak 19ko batzarra izan zen kontu guzti honetan gehien markatu zuena non, batzordeari esku joan zitzaion erabat. Bertan, batzordeko ordezkariak bere proiektua *azaldu* zuten, denda berriaren kokaleku berria muntaia baten bidez erakutsiz eta bere azalera adieraziz, 360 metro koadro, hain zuzen. Informazio horrekin bozketa bat egitera behartu gintuzten. Gure mezua garbia zen: informazioa eta adostasuna inolaz ere onartzen ez genuen bozketa baten aurrean, batzordeak bere proiektua bazkideen gainetik jarri nahi baitzuen.

Batzar hura aurkaratzea, hori zen batzordeak egun hartan jarri zigun desafioa. Baita egin ere! Estatutuetakoa hainbat punturen aurkako batzarra izanik, sinadura bilketa bat egin genuen batzar hori atzera botatzeko, eta lortu egin genuen. Baina gure eskaria Estatutuen irakurketa zorrotz batetik harago zihon, bazkide guztien arteko adostasun bat bilatzea eskatzen genuen, erabat logikoa. Eta horretarako bidezkoa behar zuen bazkide *guzti-guztiek* proiektu honen berri jakitea.

Baina hala eta guztiz ere batzordeak bere jarrerarekin jarraitu du, adostasun bat lortzeko ahalegin txikirik egin gabe eta informaziorik eskaini gabe, nahiz eta abenduan *azterketa ekonomiko sakon bat zintzotasunez* egingo zutela hitz eman. Minutu erdi batean eman daitezkeen gutxi gora-beherako zenbaki batzuk bakarrik, hori izan zen azkenik maiatzaren 13ko batzar informatiboan adierazi ziguten *azterketa* hori, eta dena beren ahotik entzunda baino ez, inolako idatzirik gabe. Honela, aukeratu batzuek bakarrik dakite, zehaztasunez, proiektuaren nondik-norakoa.

Bestalde, bazkide asko zerrendatik ezabatu egin dituzte, bozkatzeko aukerarik eman gabe. Nortzuk gara bada horrelakoak egiteko?

Azken bozketa denda kokalekuz aldatzearen alde atera zen, baina zeren truke? Kooperatiba bitan zatitzearen truke? Bestalde, bozketa hark definitiboa zirudien arren, garbi esan zitzaigun kokaleku berria ez dela oraindik segurua gauzak ondo lotuta eduki arte, galdera asko geratu baitira airean. Lokal berria Kooperatibaren jabetza izango al da? Posible izango al da eraikin berean eskola eta denda bat ezartzea? Are gehiago, eskola egingo al da? Udalaren kontua den arren, batzordeak argi utzi zuen ez zela egingo.

Idatzi honen bidez adierazi nahi dugu orain arte bilatu ez den adostasun hori lortzeko borondatez jarraitzen dugula, Kooperatiba bat garelako, bertan sinesten dugulako eta seguru gaudelako hasieratik batzordeak borondate hau erakutsi izan balu ez zela horrelako iskanbilarik sortuko. ■ **Kooperatiba plazan taldea.**

**Ludoteka bat behar dugu**

Zenbat euri! A zer udaberria! Katiuskak putzuei aurre egiteko. Umeen ezinegoinari nola jarri mugak, etxeko lau pareta tartean sartuta? Euria ohikoa dugun lurraldean umeek beren sormena aske lantzeko lekua behar dugu. ■ **Guraso bat.**

# Orio

## Anibarko Portuko festak

Ekainaren 22an:

- 10:00etan, txupinazioa eta diana trikitixarekin.
- 10:30ean, haurrentzako jolasak: apar festa, puzgarriak eta aurpegia margotzea.
- 11:30ean, jubilatuen hamai- ketakoa, Kaiua tabernan.
- 12:00etan, sardina-jana eta sagardoa txotxetik, bertsola- riek.
- 12:30ean, patata tortilla lehiaketa eta dastatzea.
- 15:30ean, mus txapelketa. Herriko Ligako 3. jardunaldia.
- 16:00etan, haurrentzako jolasak, Txurrunuski aisialdi taldeko begiraleekin.
- 17:30ean, txokolate-jana haurrentzat eta helduentzat.
- 18:30ean, helduen jolasak.
- 21:30ean, Anibarko Portuko auzokideen afaria, bertsoz eta kantuz alaitua.
- 23:00etan, DJ Arostegi.

## Kayak Oria ibaian

- Ekainaren 22an, 16:00etan; uztailaren 9an, 16:30ean; 18an, 11:00etan; 23an 16:30ean; abuztuaren 2an, 12:00etan; 10ean, 17:00etan; 16an, 11:00etan; 24an, 17:00etan; 31n, 11:00etan; irailaren 7an, 17:00etan. Irteera eta izena ematea: Orioko Turismo Bulegoan: 943 835565.

## Traste zaharrak

- Ekainaren 26an, uztailaren 17an eta 31n, abuztuaren 14an eta 28an, eta irailaren 11n, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu. Tf.: 943 830 346.

## Erakusketa

- Ekainaren 28tik uztailaren 1era, Ostargi taldekoen lanak -margo lanak, arropak, patchwork, brodatuak, korratz-lanak, ehoziri-lanak, gurutze-puntua...- ikusgai, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, Kultur

Etxean. Irekiera, ekainaren 21ean, 18:00etan.

## Busti zaitez

- Ekainaren 30ean, esklerosi anizkoitza duten gaixoei errehabilitazio saioak ordaintzen laguntzeko kamiseta salmenta eta diru biltzea *Busti zaitez* kanpainaren baitan, 11:00etatik 14:00etara, Herriko Plazan.

## Elkarretaratzea

- Ekainaren 28an, uztailaren 26an eta abuztuaren 30ean, euskal preso politikoak etxeratzearen aldeko elkarretaratzea, 19:00etan, Herriko Plazan.

## Udako kirol kanpaina

- Uztailan eta abuztuan.
- Umeak
- Igeriketa ikastaroa. 3-4 urtekoentzat, 10:15etik 11:00etara; 5-6 urtekoentzat, 11:00etatik 11:45era.
  - Jolasak. 6-9 urtekoentzat, 09:30etik 10:30era.
  - Eskulanak, tenisa, sofbola eta saskibaloia aukeran, 6-9 urtekoentzat, 10:30etik 11:30era.
  - Padela, dantzak -*zumba*, *hip-hop*, *funky*- eta igeriketa aukeran, 6-9 urtekoentzat, 11:30etik 12:30era.
  - Futbola, 6-9 urtekoentzat, 18:15etik 20:00etara.
  - Padela, jolasak, sofbola eta surfa aukeran, 10 urtetik gorako gazteentzat, 10:30etik 11:30era.
  - Patinak, saskibaloia, surfa eta tenisa aukeran, 10 urtetik gorako gazteentzat; 11:30etik 12:30era.
  - Astelehenetan, aerobika, edadetuentzat gimnasia, padela, fisio-osasuna eta *zumba*, helduentzat.
  - Astearteetan, aerobika, pilatesa, spinninga, paddela eta fisio-osasuna; helduentzat.
  - Asteazkenetan, aerobika, paddela eta *zumba*; helduentzat.
  - Ostegunetan, pilatesa, spinninga, paddela, fisio-osasuna

eta spinninga; helduentzat.

- Ostiraletan, aerobika.
- \*Kirol bakoitzak ordutegi zehatza izango du. Informazioa eta izena ematea, Karela kiroldegian.

## Hitzaldia

- Uztailaren 5ean, Chikung CFQ auto-sendatze sistemari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Alex Arellano. 20:00etan, Mandalara taldearen Antxiola kaleko lokalean. Informazioa: 648 497 489.

## Ikastaroak

- Uztailaren 12an, jaboi naturalak egiteko ikastaroa, 18:00etan, Herriko Plazan Tf.: 943 83 03 46.
- Uztailaren 12an eta 13an, Chikung CFQ auto-sendatze sistemari buruzko ikastaroa. Irakaslea: Alex Arellano. Goizetan, Mandalara taldearen lokalean. Informazioa: 648 497 489.

## Orio-Donostia-Orio itsasoz

- Uztailaren 14an eta 25ean eta abuztuaren 1ean eta 21ean, 17:00etan, Orioko kirol portutik abiatuta. Izen emateko: 943 835 565.

## Donostiako suak baporetik

- Abuztuaren 10etik 16ra, Donostiako su artifizialak itsasontzitik ikustera irteera. 21:30ean, Orioko kirol portutik abiatuta. Izen-ematea, Orioko Turismo bulegoan: 943 835 565.

# Aia

## Ikastaroa

- Uztailaren 1ean, konposta nola egin jakiteko ikastaroa, 19:00etan, Kultur Etxean. Izena emateko eta argibideak jasotzeko: 943 55 48 74 edo [konposta@urolakosta.org](mailto:konposta@urolakosta.org)

## Erakusketa

- Aiako Sandomato eta Sanlorentzo jaiak bitartean, Jasone Irigoien artista aiarraren margolanen erakusketa, Jauregi jatetxean.

## Silo-Bolak

- Uztailaren 9an, abuztuaren 13an eta irailaren 10ean. Silo-bola plastikoen bilketa. Informazioa: 943 81 65 00 -Ur-kome- edo 660 049 751 -Igor-.

## Podologoa

- Uztailaren 20an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 131 144.

## Santio jaiak

### UZTAILAREN 24AN:

- 22:30ean, bertso saioa: Andoni Egafia, Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Xabi Paya eta Maialen Lujanbio. Gai jartzaila: Unai Menterola.
  - Ondoren, Skasti eta Aienel musika taldeen emanaldia.
- ### UZTAILAREN 25EAN:
- 10:30ean, meza
  - Ondoren, herri kirolak: Heldu! zaldiaren aurka.
  - 22:30ean, erromeria Izer eta Alabierrekin.

### UZTAILAREN 26AN:

- 10:30ean, meza
- Ondoren, ume-jolasak
- 22:30ean, Bide batez taldea.
- 03:00etan, oilasko-biltzea.

### UZTAILAREN 27AN:

- 16:00etan, mus txapelketa.
- 23:00etan, Abiba disko jaiak.

### UZTAILAREN 30EAN:

- 21:00etan, oilasko-biltzeko afaria, Portu erretegian
- Ondoren, Kupela taldea.

### UZTAILAREN 31N:

- 10:00etan, meza.
- Ondoren, edadetuentzako hamai-ketakoa.
- Gero, herri kirolak: aizkolarriak: Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Zubizarreta eta harri-jasotzaileak: Joseba Ostolaza eta Jokin Eizmendi.

## OHARRA

Azken urteotako ohitura alde batera utziz, aurten ezin izan dugu Andatzako Sanpedroen eta Aiako Sandomato eta Sanlorentzoen festa egitaraua argitaratu, gastu hori ezin baitugu gure gain hartu.

20. LITERATUR  
LEHIAKETA

orioraia

**1** 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.

**2** Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.

**3** Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.

**4** Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.

**5** Lanen luzera librea izango da.

**6** Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.

**7** Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).

**8** Gaia librea izango da.

**9** Lanak aurkezteko era:

Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.

Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefona.

**10** Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.

**11** Sariak hauek izango dira:

**Ipuinen atala**

**1. saria:** 300 euro

**2. saria:** 200 euro

**3. saria:** 150 euro

Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa

**Bertso edo olerkien atala**

**1. saria:** 300 euro

**2. saria:** 200 euro

**3. saria:** 150 euro

Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa

**12** Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko ordezkari batek eta KARKARA aldizkariko kide batek osatuko dute.

Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.

**13** Lanak aurkezteko tokia eta epea.

Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.

**2013ko urriaren 31** izango da horretarako azken eguna.

**14** Antolatzaileek berea izango dute

saritutako lanak argitaratzeko eskubidea.

Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.



ORIOKOU DALA

Euskaraz  
bizi-bizi

